

Zerbitzua memoria laburtuarekin

Euskalitek Kudeaketaren Kalitateari Euskal Sarira aurkezteko (Zilarreko Q eta urrezko Q) bi eredu eskaintzen ditu:

1. 75 orriko memoria tradizionalarekin.
2. Memoria laburtuarekin (25 orriko memoria gehi eranskinak).

Lehenengo aukera guztiz ezaguna da sariaren aurreko edizioetan zabalkunde handiena izan duena baita.

Bigarren aukera oso baliotsua da 75 orriko memoria bat idazten denbora edo errekurtsio gehiegi inbertitu nahi ez duten erakundeentzat. Bide honek, errekurtsio gutxiago erabilita, hautagai izan nahi duten erakundeei aukera ematen die ebaluatua izateko, beren kudeaketaren garapenaren inguruan aditu talde batek duen iritzia jakiteko eta, puntuazioa nahikoa bada, Bikaintasunaren Euskal Saria lortzeko.

Memoria Laburtuaren ereduak, 75 orriko memoriaren ereduarekin alderatuta, ebaluazio prozesu ezberdina du, atal kontzeptualean zein formalean.

Memoria Laburtuaren ereduan prestatu beharreko dokumentazioa, Ebaluatzaile Taldeari enpresa aurkezteko balio du. Erakundea zein inguruean garatzen den deskribatzen du, bere kudeaketaren ideia garrantzitsuenak azpimarratzen ditu, lortu diren emaitza klabeak azaltzen ditu, erakundeak jarraitzen duen sistematikaren adibide batzuk eskaintzen ditu, baina ez du gai guzti hauetan gehiegirik sakontzen. Informazioaren zati handi bat, erakundearen pertsonekin, Ebaluatzaile Taldeak lau egunetan zehar izango dituen elkarrizketetan bilduko da.

Memoria Laburtuaren ereduak ebaluazioa jasotzen duen erakundearentzat hainbat abantaila ditu:

- Aurkeztu beharreko dokumentazioa erakundearen beraren kudeaketa eredura gehiago egokitzen da.
- Dokumentazioa 75 orriko memoriaren kasuan baino errazago prestatzen da.
- Dokumentazioa garrantzitsua da baina ez erabakigarria.

Aldiz, memoriaren erredakzioan inbertitzen ez den denbora, faktore hauen bitartez ordezkatu beharra dago:

- Gakoak diren pertsonen erakundearen errealitatea oso ondo ezagutu behar dute.
- Ideia garrantzitsuenak transmititzeko eta laburbiltzeko doaiak eduki behar dira.
- Ebaluatzaile taldearekin egin beharreko bisitak eta elkarrizketak oso ondo prestatu behar dira.

Hurrengo loturan sakatuta kanpo ebaluaketaren zerbitzuaren oinarrien berri edukiko duzu:

<http://www.euskalit.net/nueva/evaluacionexterna.php>